

Irakurketa errazerako foroa sortzea bultzatzen dugu

Alzheimer dutenen Senideen Bizkaiko Elkar-
teak (AFA), (ezgaitasun fisika edo organikoa
duten pertsonen Federakundea) Fekoorek
kudeatutako Bizkaiko Foru Aldundiko egu-
neko zerbitzua den Albolarte Zentroak, Lec-
tura fácil- Irakurketa Erraza Bizkaiak, San-
tutxuko Kirikiño eta Barrikako Barrika Barri
Egoitzek eta Santurtzioko San Jose de Cala-
sanz Ikastetxeak irakurketa errazerako foroa
sortu dugu, zailtasun kognitiboak dituzten
personentzat.



Irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak ditu-
zen taldeentzat sortu da Foroa, berriro irakur-
tzeko ilusioa hartzeko, irakurketa errazaren
tailer berezien bitartez. Tailer hauetan, hizke-
ra, edukiera eta diseinuko ezaugarri berezie-
kin egindako irakurketa materialak erabiltzen
dira erraz irakurri eta ulertzeko. Irakurketaren
saio espezifikoak Lectura Fácil Euskadi-
Irakurketa Erraza ekimenetik sortzen dira,
irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunen talde-

kiko sentsibilizazioagatik. Helburua da per-
sona hauek irakurketa, informazio eta kultu-
rarako sarbidea eduki dezaten. Irakurketa
Errazak irakurketa, ikus-entzunezko eta mul-
timediako materialak eskaintzen ditu, erraz
irakurtzeko bereziki eginda. Proiektua zabalik
dago parte hartu nahi duen edozein talderen-
tzat.

Lor ezazu gure egutegi solidarioen ale bat!

Martxoaren amaieran, Guztion Artean Foroaren
gosaria berriro antolatu
genuen. Partaidetzak
izugarriko arrakasta
lortu zuen erakunde
batzuk joan zirelako.
Guztionean Eginez
Foroak helburutzat har-
tzen du edozein erakun-



de, gizarteari dagokionez,
erantzule izan daitekeela. Bil-
bao Rugby Club Unibertsita-
ria, Ercilla Hotela, EDP
(elektrizitate eta gazten sek-
toreetan lan egiten duena), eta
Bizkaiko Colegio Oficial de
Agentes Comerciales
(COACB) sarituak izan ziren
erantzule izateagatik.

Lor ezazu gure egutegi solidarioen ale bat!



Uribe-Kosta Elkarteko adimen-ezgaitasunen
pertsonak eta Barrika Barri Egoitzako na-
gusiek egutegi solidarioa egin dute gizarte-
an duten baliotasuna erakusteko. Lor ezazu
gure egutegi solidarioen ale bat!



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32

barrikabarri@euskoges.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bil-
bao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58

kirikiño@euskoges.com



Ekitaldiz betetako maiatza daukagu. Zuen zain gaude!

Maiatza ekitaldiz beteta agertzen zaigu eta
guztiok gonbidatuta zaudete. Maiatzaren
12tik 19ra, Barrika Barrin eta Kirikiñon berriro
Familiaren astean ospatuko dugu, zenbait
jarduerarekin, belaunaldien arteko harrema-
nak bultzatzearen bitartez, zahartzaro akti-
boa sustatzeko. Familiaren astea, maiatza-
ren 15ean ospatzen den Familiaren Nazio-
arteko Egunean sartzen da. Jarduerak zaba-
lik daude edonorentzat.



Beste aldetik, Barrika Barri "Kirikiño eta
Barrika Barri Komunitatean" izeneko jardun-
aldiaren bigarren edizioa hartuko du. Ekital-
dia ate irekiko eguna izango da, maiatzaren
12an, goizean, Barrika Barrin. Bertan, Gizar-
te Erantzukizunean (RSE) egunez egun lan
egiten duten erakunde eta enpresa guztiak
bilduko ditugu. Zenbait jarduera martxan

jarriko ditugu, hala nola, irakurketa tailerrak,
belaunaldien arteko olinpiadak, dantzak, eta
abar.

**Etorriko zaretela espero dugu. Primeran
pasatuko dugu!.**

Eroraketak saihesteko tailerra

Adinekoen artean, erorketak dira gehien ger-
tatzen diren istripuak eta, heriotzaren arrazoi
nagusietako bat adin talde honetan.

diren egoitzako gure nagusi batzuk ere, eta
Kirikiño eta Barrika Barriko kanpoko instala-
zioetatik mugitzen direla.

Arazo honetaz jakitun egonik,
gure nagusientzako gune
seguruak prestatzeaz gainera,
tailer bat garatu dugu euren
bidean topatzen diren zailta-
sun eta ezustekoen aurrean
seguruago senti daitezen
erorketak aldeztu aurretik
saihesteko. Zehazkiago, Ki-
rikiñon, Eguneko Zentroan eta
egoitzan dauden nagusientzat
martxan jarri dugu zirkuitu bat.



Zentzu honetan, tailerraren
protagonistek finkotasuna,
koordinazioa, indarra eta
erresistentzia hobetzen
dituzten proba eta ariketa
batzuk egiten dituzte.

Honetan, egunez egun kalean
topa ditzaketuen oztopoei, hala
nola, zuhaitz, paso estua uzten duten kotxe
aparkatu, zintarri eta altuera desberdinei
irtenbidea ematen ikasten dute.

Gainditu behar dituzten ozto-
poak, beste batzuen artean,
holakoak dira: zapaldu behar
dituzten txirindolak pausu
luzeak ematen ikasteko,
altuera desberdinetako es-
kailerak, edo topatu gabe
zeharkatu behar dituzten

pilen ilarak.

Ideia ona iruditzen zaiela azpimarratzen dute
gure nagusiek eta oso pozik daude ekimena-
rekin, laguntza lortzeaz eta aktibo man-
tentzeaz aparte, dibertigarria delako.

Gogoratu behar da, kalera irteten direla Egu-
neko Zentroarenak, bai eta auzoan ibiltzen



AZPIMARRATZEKOAK



Primeran pasatu dugu gertatu berriko inauterietan. Barrika Barrin eta Kirikiñon jai atseginak ospatu genituen

Kirikiño ikastolako abesbatzak itzelezko kontzertua eskaini zigun. Egoiliarrek eta senideek asko gozatu zuten



Radio Nacional de España Irratiak, orain dela gutxi, Irakurketa Errazerako Foroa sormena dela eta, elkarrizketatu gaitu, ekimen honek oso sarrera ona eduki duelako

Onda Vasca Irratiko programa berriro etorri zen eta Enpresaren Gizarte Erantzukizunari buruzko irratizko jardunaldi berezia pasatu genuen



Barrika Barrin eta Kirikiñon, udaberriko eguzkiaren lehenengo izpiak aprobetxatzen ditugu. Jarduera batzuk kanpoan egiten ditugu



Gure nagusien zerbitzura



Egoitzen arteko abestien programa antolatu dugu. Kirikiño eta Barrika Barriko nagusiek elkarrekin gozaten dute eta harremanetan jartzen dira



Langileei onartzeko programaren barruan, gure lankidea den Kike Bajeneta bi pertsonentzako sparako bonoa jaso zuen, Kirikiñoren bizitzan daukan borondatezko partaidetza aktibogatik

Asko gustatzen zaigu belaunaldien arteko topaketak egitea. Azkena Berriotxoa Ikastetxearekin egindakoa izan da, belaunaldien arteko olimpiada berriekin



Gure instalazioak nabarmenak dira. Barrika Barriko lorategiak eta Kirikiñoko kanpoko gunea bereziak dira. Bizkaiko egoitza gutxik dituzte hola-koak. Orain eguraldi onarekin gure nagusiek gozatu dute.

Asteetan zehar, era askotako tailer dibertigarri eta interesgarriak antolatzen ditugu, gure egoiliarrek euren arlo psikosoziala indar dezaten.

